

9. zirkularra:

Probintziaren hausnarketa Kataluniako lurralde eta gizarte arloko gaiari buruz

Jesuita lagun maiteok eta Jainkoagan adiskideok:

Duela urtebete baino gehiago, 2017ko urriaren 11n, Probintziako jesuitei eskutitz bat bidali nien Katalunian gertatzen ari zenari buruz balorazio haztatua egiten saiatuz. Eskutitz horretan adiskidetzeko arloko eragile izan zitezten sustatu nituen denak, gertaeren konplexutasuna ulertzen lagunduz eta Jesusen Lagundiak ongi konpontzen ez direnak adiskidetzeko duen berariazko misioa landuz.

San Paulok dio *Jainkoa da Kristoren bitartez mundua berekin adiskidetu duena (...) eta adiskidetzearen mezu hau gure esku utzi duena* (2 Ko 5, 19). Jainkoarekin izandako adiskidetzeko hau (transzendentea eta salbazioaren historiaren zatia) gizarte eta garai bakoitzeko orain eta hemen guztietan haragiztatzera deituta dago; eta nahitaez islatu behar da geure buruak bere Semearen ebanjelioaren jarraitzailetzat aitortzen ditugun guztion topaketarako eta elkarrizketarako gaitasunean, Seme horrekin bere misioan lankidetzan aritzeko deituak garenon gaitasunean.

Berriro ere gai honi buruz idazten ari natzaizue, Auzitegi Gorenean *procésaren* epaiketa hastear delako eta litekeena delakoa berriro ere sentimenduak, uste sendoak eta sentsibilitateak dantzan jartzea. Gauza batzuek, auzipetuen prebentziozko espetxealdi luzeak, esaterako, ez dute lagundu gauzak hobetzen eta amorrua arintzen. Arazoek, ikuspegi desberdinek eta gizartean irekitako zauriek hor jarraitzen dute agerian edo ezkutuan, nahiz eta gaur egun testuinguru batzuetan ez den arazoaz garai batean adinako indarrarekin eta suhartasunez hitz egiten. Zentzu honetan, Espainiako zati handi batean indiferentzia eta asperdura dauden arren, denoi erasaten digun gaia da eta ez guke eragiten ez digun zerbait balitz bezala hartu behar. Bestalde, Kataluniako askok –tentsioa nabariagoa den tokian- ezer ere ez dela konpondu usteko dute, edo gizartearen zati batek eskatu duen independentzia eskaria behar ez bezala itxi nahi izan dela.

Dena dela, adiskidetzearen alde lanean jarraitu beharra daukagu eta jendaurreko adierazpenak neurtzen ere bai, polarizaziorako joera duen eta baieztapenak eta posizionamenduak absolutizatzen dituen gizartean. Gure Probintziako jesuiten eta laikoen sentsibilizazioek ia sorta politiko osoa hartzen dute eta ez guke zalantzan jarri behar denok nahi duguna dela Jainkoaren Erreinua eta koherentzia ebanjelikoa zintzotasunez aurkitzea. Aniztasun honek berak adierazten digu oso umilak izan behar garela kokapen politiko edo sozial bat hartzea argumentu ebanjelikoekin justifikatzerakoan. Hori dela eta, oso eskertzen dizuet azken hilabeteetan gure presentzia publikoak eta pribatuak izandako zuhurtzia eta arazo honetaz hitz egin dugunean, topaketa eta adiskidetzeko sustatu duten testuinguru eta formatuetan egin izana, gatazka edo polarizazioa sustatu ordez.

Ildo horri jarraituz, igaro den ikasturtean elkarrizketa esperientzia batzuk egin ditugu Probintzian Kataluniako egoeraz pertzepzio eta sentsibilitate desberdinak dituzten jesuiten artean, laikoen artean, laikoen eta jesuiten artean... Erabilitako metodologiari esker, gai hauek aztertu ahal izan ditugu, topaguneak aurkitu eta bestearen jarrera onartu. Bilera hauetan partaide bakoitza saiatu da *“prestago egoten hurkoaren esana onesteko gaitzesteko baino; eta ezin*

onetsi badu, galdegin biezaio nola ulertzen duen; eta oker ulertzen badu, zuzen beza maitekiro; [...]” (GJ, 22). Ekimen hauek adierazi digute elkarrizketa ahal dela, batek konbentzitu ordeztuz eta ulertu egin nahi badu; beraz, beharrezkoa eta erabilgarria da elkarrizketa sakona eta eraikitzailea ahalbidetuko duten guneak zaintzen jarraitzea, barne-barnean gehien lotzen eta batzen gaituenetik abiatuta.


Egia esan, egoera konplexu honetan eta gure munduko haustura ugaritan adiskidetzeko tresna izateko deia sentitu eta dei horri harrera egiteko aukera dugu, horretara gonbidatzen gaitu Ebanjelioak eta gure azkeneko Kongregazio Jeneralean azpimarratu egin da. Jesusen Lagundi gisa Espainiako geografian zehar erakunde askotan gaude eta horri esker gizartean dagoen aniztasun bera dugu guk ere. Baina gizakiaren tresnak, psikologikoak eta espiritualak ere baditugu errespetuzko isiltasunean edo gatazka irekian sar ez gaitezten. Probintzia gisa kontzientziatzen jarraitu behar dugu aniztasun historiko, kultural, hizkuntza arloko eta nortasun arloko handia dugula. Hori ez litzateke mehatxu bezala ikusi behar, baizik eta aberastasun handi bezala, eta gutako bakoitza erabat eta sakon errespetatu behar litzateke bere nortasunari edo nortasunei dagokienean.

Denok animatu nahi zaituztet diferentziatik eta aniztasunetik elkar topo egitera eta elkarrizketan aritzera. Gure unibertsitateko erakundeak gonbidatu nahi ditut, beren aukeren arabera arlo juridikoan, ekonomikoan, gizarte zientzien arloan edo azterketa politikoarenean aurrera egiteko balizko bideak azter ditzaten. Probintziako Pastoral sektoreko fede-kultura-justizia zentroek adiskidetzearen kultura definitu dute datorren ikasturtean elkarrekin lantzeko eremu gisa. Adiskidetzeari edukiak emateko garapen asko dago egiteko: aurrez dauden aukerak, gutako bakoitzean landu beharreko jarrera pertsonalak, adiskidetzearen eta indarkeria ezaren eta bakearen kulturaren artean egon beharreko harremana... Partekatu denokin lan eta hausnarketa honen fruituak.

Berrito gonbidatuko zaituztet hizkuntzarekin ere kontu handia izatera. Azkenaldian “gatazka”, “erronka”, “preso politikoak”, “politiko presoak”, “abertzaletasuna”, “erradikalismoa”, “faszismoa”, “golpismoa”... bezalako terminoek esanahi berezia dute gaur egun jendearen artean eta harresiak egiteko eta mugak ezartzeko erabiltzen dira. Ea bideren batzuk aurkitzen ditugun gure adierazteko moduak onen eta gaiztoen, heroi eta bilauen edo biktimen eta biktimarioen... logika eragin ez dezan berehala. Gure mezuak zubiak egiteko lagungarriak izan behar dira eta elkarteko dinamikak sortu behar dituzte, are gehiago gure lanaren ondorioz sentsibilitate desberdinetako jendearekin zuzeneko harremanetan gaudenean.

Denok dakigu Kataluniako lurralde eta gizarte arloko gaia ez dela gure adiskidetzearen ondorio sendatzaileak behar dituen errealitate bakarra, baina gonbidapen bat egin nahi dizuet: egun hauetan gure otoitz pertsonalean eta taldekoan Jainkoari eska diezaiogula gai horretara Jesusen jarrerarekin eta begiradarekin gerturatzen laguntzeko eta Berak gure gogora eta bihotzera ekar dezala gure misioa zein den, hau da, gizarte bidezkoagoa, anaiartekoagoa eta ebanjelikoagoa eraikitzea.

Jaunagan nire afektu guztiarekin eta nire otoitzarekin, jaso agur bero bat,



Antonio J. España Sánchez, SJ
Espainiako Probintziala